

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO EBALUAZIO BEREZIRAKO EPAIMAHAIA

Graduko Titulazio Ofizialetako ikasleen ebaluaziorako arautegiaren 30. artikulua zehazten ditu UPV/EHUko epaimahai berezi guztiek ebaluazio berezirako eskariak ebazteko jarraitu behar dituzten irizpideak:

a) Ebaluazio berezirako eskaria jaso eta 29. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla baieztatu ondoren, epaimahai bereziak onartu egingo dituzte ondoko baldintzak betetzen dituzten eskari guztiak:

- Ikasleak irakasgaiko lau deialdi, behintzat, erabilita izatea.
- Deialdietakoren batean, gutxienez, lau puntuko kalifikazioa lortuta izatea.
- Gradu amaierako lana kenduta, titulazioa amaitzeko geratzen zaion azken irakasgaia izatea.

b) Ebaluazio berezia eskatzeko baldintzak bete arren aurreko atalean adierazitako baldintzak, irakasgaia ebaluazio bereziaren bidez gainditzea dakartenak, betetzen ez direnean, ikastegiko epaimahai bereziak honako hauek izango ditu kontuan eskaria ebazteko:

- Ikastegiko Batzorde Akademikoak onartutako irizpideak, unean uneko ikasturterako matrikula aldia baino lehen argitaratuko direnak.
- Irakasgaiaren ardura duen sailaren txosten arrazoitua.
- Ikaslearen espediente osoa.
- Ikaslearen alegazioak, bere ustez irakasgaia ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko kontuan hartu behar diren alderdiak nabarmenduz eta arrazoituz aurkeztu ahal izango dituenak.



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO EBALUAZIO BEREZIAREN EPAIMAHAIAREN BARNE-IRIZPIDEAK

Dagokion ikasturterako "Graduko ikasketen eta lehenengo eta bigarren zikloetako kudeaketa araudia" txostenean adierazten diren betebeharrak jarraitzeaz gain, Zientzia eta Teknologia FakultateKO Ebaluazio Berezirako Epaimahaiak hurrengo irizpideak izango ditu kontuan, kasu bakoitzean esanguratsuak direnak aplikatuz inongo lenetasunezko orden berezirik gabe:

- Ebaluazio berezia zein ikasgairako eskatzen den: ikaslearen prestakuntzarako oinarrizko ikasgaia den kontsideratuko da (lehenengo zikloko ikasgaia, titulurako edota lanbiderako oinarrizkoa den ikasgaia, etab.).
- Ikasleak zein posizio duen bere promozioan.
- Konpentsatzeko eskatutako kredituen eta eskatzaileari titulazioa amaitzeko geratzen zaizkion kredituen arteko erlazioa.
- Eskatzailearen "gainditzeko esfortzua", honen interpretazioa konpentsatzeko ikasgaietan ikasleak ondoz-ondoko azterketetan lortutako emaitzen mailakako gehikuntzan oinarritu daitekeelarik.
- Ikasturteko batezbesteko nota edota errendimendu-tasa (gainditutakoak/matrikulatuak) konpentsatu nahi den ikasgairako.
- Eskatzailea egiten ari den titulazioa bukatzeko behar diren batezbesteko urteak, Unibertsitateko bere egote aldia kontuan hartzean.
- Pertsona eskatzaileak bere ibilbide akademikoan zehar erabilitako deialdietako batezbesteko kopurua.
- Epaimahaiari bere erabakia ebazten lagun diezaiokeen edozein egoera dokumentatu.

